



<p>➤ Adierazi mintzari eta garraioari buruzko adierazpen hauek egiazkoak ala gezurrezkoak diren.</p>		
1. Mintz plasmaticoaren antolaketa berdina da eukarioto guztietan baina prokariotoetan bi mota nagusi daude: gram positibo eta gram negatibo antolaketa.	E	G
2. Mintz-lipidoak etengabe mugitzen ari dira geruza bikoitzaren planoan eta bi monogeruzen artean ere bai.	E	G
3. Temperatura jaisten bada lipido geruza bikoitzaren jariakortasuna ere jaitsiko da.	E	G
4. Inositol-fosfolipidoak lipido nagusiak dira mintz plasmaticoan.	E	G
5. Kolesterolak ez da agertzen prokariotoen mintzetan, baina bai zelula eukarioto gehienetan.	E	G
6. Lipido-baltsetako lipidoek oso kate luzeak izaten dituzte.	E	G
7. Glikolipidoak gune estrazelularra begira daude kokatuta, inoiz ez barneko mintzetan.	E	G
8. Mintz-proteina periferikoak agertzen dira mintz plasmaticoan bakarrik, zehazki alde estrazelularrean.	E	G
9. Mintz-proteinen difusio-tasa proteinen tamainak eragiten du.	E	G
10. Garraio-proteinak, mintz zeharreko proteina guztiak bezala, asimetrikoak dira	E	G
11. Glukosa zelularen barrura sar daiteke kontzentrazioaren aurka mintz plasmaticoan dagoen kanal baten laguntzarekin.	E	G
12. Konpartimentuen arteko solutu txikien trukea difusioz edo garraio-proteinen bidez lortzen da, proteinen trukean ordea, derrigorrez, besikulen bidez egiten da.	E	G
13. Ioiak, oso txikiak direnez, erraz difunditzen dira mintzean zehar.	E	G
14. Izan ere, garraio-proteinak erabiltzen dira bakarrik ioiak gradientearen aurka mugiarazteko (garraio aktiboa)	E	G
15. Garraio aktiboari esker K^+ -aren kontzentrazio zitosolikoa altua da, Ca^{++} -arena ordea oso baxua.	E	G
16. Solutuen garraio aktiboan energia asko gastatzen da, izan ere garraio-proteina asko ATParen hidrolisia egiteko gai dira.	E	G
17. Animalia-zelularen presio osmotikoa kontrolatzen da ioi-garraioaren bidez.	E	G
18. Animalia-zeluletan mintz zelular guztiek karga negatiboa dute alde zitosolikoan.	E	G